

## KUDEAKETAKO TEKNIKARI ERTAINA, 1.A KASU PRAKTIKOA

Balorazioa: 4 PUNTU

### ENUNTZIATUA

Bizkaiko foru Aldundiko bulego batzuetarako higiezin hornidurarako lizitazio batera hiru lizitatuzaile aurkeztu dira: Altzariak1, Altzariak2 eta Altzariak3.

Lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratu zen, eta eskaintzak aurkezteko epe hau ezarri zen: 2018ko martxoaren 30eko 12:00ak arte.

Lizitazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea indarrean jarri zenetik egin ohi den bezala, baliabide elektronikoen bidez egin da, nahitaez.

2018ko apirilaren 4an Altzariak1 eta Altzariak2 lizitatuzaileen eskaintzak ireki ziren eta Altzariak3 lizitatuzailearen eskaintza bazterrean uztea erabaki zen, eskaintza hori 2018ko apirilaren 2an aurkeztu zelako, beraz, epez kanpo.

Eskaintza bazterrean uzteko foru agindua 2018ko apirilaren 10ean jakinarazi zitzaion Altzariak3 lizitatuzaileari, haren aurka errekurtsio arrunta aurkez zezakeela ohartaraziz.

2018ko maiatzaren 10ean, Altzariak3 lizitatuzaileak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen, honako hau argudiatuz: eskaintza ezin izan zuela epearen barruan aurkeztu aurkezteaz arduratzen ziren langileek ezin izan zutelako egin, lizitazio elektronikoren aplikazioa ezagutzen ez zuelako, une horretara arte ez zuelako era horretara parte hartu, aurretik Bizkaiko Foru Aldundiak altzarien hornidurarako lizitazioak modu arruntean egiten zuelako, zegoen dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zerbitzuan aurkeztuta; eta, horregatik, errekurtsioa baiesteko eskatzen du eta eskaintza epearen barruan aurkeztutzat onartzeko.

Proposatutako kasua dela eta –eta kontuan hartuta kasu hori konpontzeko edo kasu horri buruzko ebazpena emateko ez dela beharrezkoa kontratazio publikoko ezagupenak edukitzea- erantzun galdera hauek, arrazoiak emanda:

- 1.- Aurkeztutako errekurtsioaren egokitasuna. (puntuazioaren % 20).
- 2.- Errekurtsioa aurkezteko epearen azterketa (puntuazioaren % 20).
- 3.- Erantzun, labur-laburrean, ze erantzun emango zenioke errekurtsioari (puntuazioaren % 40).
- 4.- Zein den aurkeztutako errekurtsioari buruzko ebazpena emateko eskumena duen organoa eta, ondoren, zeintzuk diren emandako ebazpen horri aurkeztu ahal zaizkion errekurtsioak (puntuazioaren % 20).

## KUDEAKETAKO TEKNIKARI ERTAINA, 2.A KASU PRAKTIKOA

Balorazioa: 4 PUNTU

### ENUNTZIATUA

XXX funtzionarioa Bizkaiko Foru Aldundiko A2 taldeko (behin-behinik B taldeko) Kudeaketako Teknikari Ertaineko plaza batean sartu zen 2008/05/13an eta lanpostu batera atxikita geratu zen, 18. mailako destinoagatiko osagarria zuena, hain zuzen ere. Sartu zen une horretan berez talde horretarako ezarritako gutxieneko mailari zegokion gradu pertsonala izendatu edo eman zitzaion, hau da, 17. maila.

Lanpostu hori kendu egin zen eta 2011/06/13an 19. maila zuen lanpostu batera atxikita geratu zen, eta lehiaketa bidez 18. mailari zegokion lanpostu bat lortu arte lanpostu hori bete zuen. 18. maila zuen lanpostua lortu zuenean, 2012/09/18an, behin betiko destinoztat jo zen.

2015/03/13an betetzen zuen lanpostuaren maila aldatu zen eta 21. mailako lanpostua izatera igaro zen.

2018/05/15ean lanpostuz aldatu zuten, lanpostuaren edukia aldatu egin zelako, eta 20. mailako lanpostu batera atxikita geratu zen, behin-behinik, 2018/12/10era arte beteko zuena, data horretan eserleku bat lortu zuelako Eusko Legebiltzarrean. Eusko Legebiltzarreko eserlekua 2019/03/25ean utzi zuen, dimisioa aurkeztuta.

Adierazi zein den, arrazoiak emanda, funtzionario horrek data hauetan zuen gradu pertsonala:

- 1.- 2011/06/13 (1,25 puntu)
- 2.- 2015/03/13 (1,50 puntu)
- 3.- 2018/05/15 (1,25 puntu)

A2 taldeko (behin-behinik B taldea dena) maila-tartea honako hau da: 17tik 26ra bitartekoa.

KUDEAKETAKO TEKNIKARI ERTAINA, 3.A KASU PRAKTIKOA  
Balorazioa: 2 PUNTU (galdera bakoitzeko puntu 1)

ENUNTZIATUA

Z andreak 2013tik 2016ra bitarteko zergaldietako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztu zituen. Autolikidazioak aurkezteko epea 2014, 2015, 2016 eta 2017ko ekainaren 30ean, hurrenez hurren, amaitzen zen, eta den-denak aurkeztu ziren borondatezko epearen barruan. Urte horien barruan jarduketa hauek sortu dira:

1.- 2013ko ekitaldirako, zergadunak 2014ko urriaren 2an aitorten osagarri bat aurkeztu zuen, emaitza legez 120 euroko sarrera egin behar zuela adierazten zuena, aurretik interesdunak aitortu ez zuen kapital higigarrien etekinen ziozko 300 euroko zenbatekoa sartu zuelako. 2018ko uztailaren 10ean, Bizkaiko Foru Ogasunak 300 euroko sarrera egin behar zuela adierazten zuen likidazioa jakinarazi zuen, dohaintzen ziozko kenkari bat kendu zuelako, kenketa horrek justifikaziorik ez zuelako. Likidazio horren aurka, Z andreak erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen, hura preskribatuta zegoela argudiatuz.

2.- 2016ko ekitaldirako, Zuzeneko Zergen Zerbitzuak sartzeko 500 euroko emaitza duen likidazioa egin du, Z andreak ez zuelako bere aitorpenean sartu ekitaldi horretan kobratu zuen langabezia-prestazioa. Likidazioarekin ados, Z andreak ez du haren aurkako errekurtsorik aurkeztu, baina likidazioa irmoa denez gero, idazki bat aurkezten du Bizkaiko Foru Ogasunean, zorra barka diezaiotela eskatuz, berak uste zuelako langabezia-prestazioak salbuetsita zeudela. Ogasuneko zuzendari nagusiak ebazpen baten bidez erabakitzen du likidazioaren ondorioz gertatutako zorra barkatzea.

ERANTZUN GALDERA HAUEK

- 1.- Adierazi, arrazoiak emanda, 2013ko likidazioa preskribatuta ote dagoen.
- 2.- Aztertu, arrazoiak emanda, Ogasuneko zuzendari nagusiak 2016ko ekitaldiaz izan duen jarduketa.

SUPUESTO PRÁCTICO TÉCNICO MEDIO DE GESTIÓN N°1-A  
Valoración: 4 PUNTOS

ENUNCIADO

A una licitación consistente en el suministro de mobiliario para varias oficinas de la Diputación Foral de Bizkaia se presentan tres licitadoras: Muebles1, Muebles2 y Muebles3.

La licitación se publicó en el perfil de contratante determinando un plazo de presentación de ofertas hasta las 12:00 h del día 30 de marzo de 2018.

La licitación, como todas desde la entrada en vigor de la Ley de Contratos del Sector Público, se realiza, obligatoriamente, por medios electrónicos.

En fecha 4 de abril de 2018, se procede a la apertura de las ofertas de Muebles1 y Muebles2 y se determina la exclusión de la oferta de Muebles3 por haber sido la misma presentada el día 2 de abril de 2018 y, por tanto, fuera de plazo.

La Orden Foral de exclusión es notificada al Muebles3 en fecha 10 de abril de 2018, siendo susceptible de recurso ordinario.

En fecha 10 de mayo de 2018, Muebles3 interpone recurso de alzada, alegando que *la oferta no había podido ser presentada en plazo porque el personal encargado de hacerlo no conocía la aplicación de licitación electrónica ya que no habían participado, hasta el momento, en ninguna licitación de tal manera; que, anteriormente, la Diputación Foral de Bizkaia realizaba las licitaciones para el suministro de muebles de una manera normal mediante la presentación de la correspondiente documentación en el Servicio de Contratación de la Diputación Foral de Bizkaia;* y, por ello, solicita le sea estimado su recurso y se acepte su oferta como presentada en debido plazo.

En relación con el supuesto planteado -para cuya resolución no es necesario tener conocimientos de contratación pública-, responda de forma motivada a lo siguiente:

- 1.- Adecuación del recurso presentado. (20% de la puntuación).
- 2.- Análisis del plazo de interposición (20% de la puntuación).
- 3.- Contesta de forma breve cómo resolverías el recurso (40% de la puntuación).
- 4.- Órgano competente para resolver y posibles posteriores recursos contra dicha resolución del recurso (20% de la puntuación).

## SUPUESTO PRÁCTICO TÉCNICO MEDIO DE GESTIÓN N°2-A

Valoración: 4 PUNTOS

### ENUNCIADO

El funcionario XXX ingresó en una plaza de TMG del Grupo A2 (transitoriamente Grupo B) de la Diputación Foral de Bizkaia con fecha 13/05/2008, y se le adscribe a un puesto de trabajo cuyo complemento de destino tiene un nivel 18. En ese momento le fue asignado el grado personal correspondiente al nivel mínimo del intervalo establecido para el Grupo al que pertenece, es decir, el nivel 17.

Se suprime el puesto y en fecha 13/06/2011 se le adscribe provisionalmente a un puesto de trabajo correspondiente al nivel 19, que lo desempeña hasta que obtiene por concurso un puesto del nivel 18, destino que se considera definitivo a la fecha de su obtención, el 18/09/2012.

Con fecha 13/03/2015 se modifica el nivel del puesto que desempeña y pasa a ser un puesto de nivel 21

Con fecha 15/05/2018 le remueven del puesto por alteración sobrevenida en el contenido del mismo, y es adscrito provisionalmente a un puesto de nivel 20, que lo desempeña hasta la fecha 10/12/2018 fecha en la que obtiene escaño en el Parlamento Vasco, dimitiendo del Parlamento con fecha 25/03/2019

Señalar y motivar el grado personal que dicho funcionario tiene en las siguientes fechas

- 1.- 13/06/2011 (1,25 puntos)
- 2.- 13/03/2015 (1,50 puntos)
- 3.- 15/05/2018 (1,25 puntos)

El intervalo de niveles del Grupo A2 (transitoriamente Grupo B) es el siguiente: del 17 al 26

## SUPUESTO PRÁCTICO TÉCNICO MEDIO DE GESTIÓN N°3-A

Valoración: 2 PUNTOS (cada pregunta 1 punto)

### ENUNCIADO

La Señora Z presentó autoliquidaciones de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de los periodos impositivos 2013 a 2016. El plazo de presentación de las autoliquidaciones finalizaba el 30 de junio de 2014, 2015, 2016 y 2017, respectivamente y todas ellas fueron presentadas en periodo voluntario. A lo largo de los años se han generado estas actuaciones:

1.- Por el ejercicio 2013, el contribuyente presentó en 2 de octubre de 2014 una declaración complementaria a ingresar 120 euros, al incluir 300 euros de rendimiento de capital mobiliario que no había declarado. En 10 de julio de 2018 la Hacienda Foral de Bizkaia notifica liquidación a ingresar 300 euros al eliminar una deducción por donativos por falta de justificación de la misma. Contra esta liquidación la señora Z plantea reclamación económico-administrativa alegando prescripción.

2.- Por el ejercicio 2016, el Servicio de Tributos Directos practica liquidación a ingresar 500 euros porque la Señora Z no había incluido en su declaración la prestación de desempleo que ha cobrado en este ejercicio. Conforme con la liquidación, la Señora Z no recurre, pero una vez que la liquidación es firme, presenta en la Hacienda Foral de Bizkaia un escrito solicitando la condonación de la deuda porque creía que las prestaciones por desempleo estaban exentas. Por Resolución del Director General de Hacienda se acuerda condonar la deuda resultante de la liquidación.

### RESPONDE A ESTAS PREGUNTAS

1.- Indica de forma motivada si la liquidación del ejercicio 2013 se encuentra prescrita.

2.- Analiza de forma motivada la actuación del Director General de Hacienda en relación al ejercicio 2016.